

1926/3/15

## 7.2. Eliteak eta erregimen frankistaren euskarri instituzionalak

Nahiz eta Francok botere guztiak bereganatu izan, boterea elite jakin batzuen esku egon zen eta haien babesari esker egonkortu zen erregimena.

Oinarri nagusia armada izan zen; administrazioko eta gobernuko kargu garrantzitsuak betetzeaz gain, erregimenaren izaera autoritarioa bermatzen zuten. Aldi berean, FET y de las JONS, ideologia zabaldu eta gizartearen kontrol politikoa antolatu zuen.

Eliza Katolikoak ere funtsezko papera jokatu zuen, frankismoaren moralitasuna erakutsiz eta hezkuntza zein gizarte-balioak kontrolatuz; nazional-katolizismoa erregimenaren oinarri ideologikoetako bat bihurtuz. Bestalde, oligarkia ekonomikoak diktadura babestu zuten, haien interes ekonomikoak bermatuta ikusten baitzituen.

*Sindikatu bakarra gurek dugu  
klase borrokan ekarizale*

Euskarri instituzionalei dagokienez, erregimenak alderdi bakarra eta Sindikatu Bertikala ezarri zituen langile eta enpresariak estatuaren kontrolpean antolatzeko. Gorte frankistak aholkularitza-organo hutsak izan ziren, benetako botere legegilerik gabe.

1950eko hamarkadaren amaieran, teknokratik ekonomia- eta politikaren esparruan eragina izan zuten. 1957an Opus Deik Egonkortze Plan bat jarri zuen indarrean, erregimena beritzeko eta liberalizatzeko ahalegina eginez. Dena den, immobilistak horren aurka agertu ziren.

Francok bi sektore horien arteko orekari eusten saiatu zen eta lage hauek promulgatu zituen:

- Mugimendu Nazionalaren printzipioei buruzko Legea (1958): erregimenaren baloreak indartzen zituen (katolizismoa, zentalismo antiliberalismoa eta diktadura pertsonala).
- Orden Publikoaren Legea (1966): Fragak ateratako lege honek zabaldu egin zuen apur bat adierazpen askatasuna, baina isunak eta kartzelatzeak egoten jarraitu ziren.
- Estatuaren Lege Organikoa (1967): Kontsultazio gisa erabili nahi zen eta berrikuntza batzuk ekarri zituen, hala nola, Estaturu eta Gobernu presidentek karguen banaketa.

Dena den, aldaketa garrantzitsuenak 1969an etorri ziren. Alde batetik, Francok bere ordeko Juan Carlos Borboikoa errege izendatu zuen erregimena mantentzeko konpromisoarekin; eta bestetik, Carrero Blanco, Francoren hurbileko almirantea; presidente-orde izendatu zuen.